



Hormastegi

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Ormástei

“... la casa nueva llamada Ormastegui... que comprende cuarenta y seis pies de frente, y de fondo cincuenta, y ocupa con inclusión de su huerta contigua, cuatrocientos cincuenta estados equivalentes a diez y siete áreas y doce centiáreas, y la que se compone de sus correspondientes pisos, divisiones y habitaciones...”
DJE 2/118 or. (1867)



43° 10' 37"

2° 34' 56"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Berez *Legorreta* (**Ikus Legorreta**) baserriaren eranskina zena, gerora etxebizitza izatera pasatu zen. Horrela, eraikin honen gaineko lehen aipuak XIX. mendekoak dira. Udal-izendegian, 1859. urtean *Hormástegui* izenarekin aurkitzen dugu etxea. Hortik aurrera, aldaketa gutxi izan zituen, eta horietan nabarmenena H galtzea izan da. Horrela, XIX. mendearen bigarren erdian *Ormastegui* (1867, DJE, 2/ 118. or.) izenez ikusiko dugu. XX. mendean Gipuzkoako herriaren grafiari jarraituz, behin baino gehiagotan *Ormaiztegui* (1910, BUA, RU) eta *Ormastegui* (1967, BUA, CE) jasotzen da. Ahozko erabilean, *Ormástei* formarik izango da ohikoena.

XIX. mendeko etxea da. Zabalkuntza batzuk izan ditu, fatxadetan ondo baino hobeto ikusten direnak eta hasieran izango zuen itxura zeharo aldatu diotenak. Fatxada nagusia oso modu orekatuan antolatua dago, baina jato-

rrizko etxea izango zena gaur egun eskuma aldean dagoena da eta garai batean etxe dotorea izango zen. Beranduago gehitu zitzaion ezker aldeko gorputza eta azkeneko pisuko txapitula eta terrazak. Aurreko antolamendua oso tipikoa zen, hiru ardatzetan antolatzen baitzen, erdikoa nabarmenduaz. Horrela, atea eta bi leiho zeuzkan beheko solairuan, eta balkoiak gainean, horiekin lerrotuta eta denak dinteldunak, erdikoa irtena izanik. Hiruretan, karelgisa, diseinu bereko burdinsarea erabili zuten. Azpimarratzekoa da etxearen baoen neurria, denboraren joanaren seinale. Gaur egun, harlangaitza desestali dute; baina, egin zenean, hormak luzituta eta pintatuta egongo ziren, nabarmenagoak eginaz ertz guztietako harlanduak. Balkoi nagusiak inskripzio hau dauka leihoburuan: “*HORMASTEGI ERYGIDA / POR M. JOSEFA DE AGUIRRE / AÑO 1864*”.

toponimia

1859an ageri da dokumentazioan etxe hau eta ondorioz garai horretan eraiki dela pentsatu behar dugu. Litekeena da Hormastegi izen hori jatorriz deitura edo ezizena izatea Bergaran XIX. mendean badelako Ormastegi deitura jatorriz Gipuzkoako Ormaiztegi herrikoa bide dena.